

Mikrodatuak – Denbora Aurrekontuen Inkestaren

Denboraren erabilerari buruzko fitxategi bateratuak (MTUS)

Denboraren Erabileraren Azterketa Multinazionalaren (MTUS) esparruan, Eustatek Euskal AEko denboraren erabilerari buruzko mikrodatuen fitxategiak eskaintzen ditu, **Oxfordeko Unibertsitateko Denboraren Erabileraren Ikerketa Zentroak (Centre for Time Use Research)** harmonizatuta.

Mikrodatuen fitxategi horiek denboraren erabilerari buruzko inkestaren datu-base baten parte dira, **Multinational Time Use Study (MTUS)** esparruak zabaldua. Datu-base horrek 1960ko hamarkadaz geroztik metatzen ditu inkestak, eta aukera ematen du serie komunak datu-multzok bat edukitzeko, herrialde kopuru handi batentzat, biztanleriak egunean erabilitako guztizko denboraren gainean, 25 edo 69 jardueratan banatuta (MTUS-summary fitxategiak). Gainera, azken bertsioek egunean zehar izandako jarduera-gertaera bakoitzaren iraupenari buruzko informazioa ere jasotzen dute (MTUS-episode fitxategiak).

2012ko urrian, Oxfordeko Unibertsitatearen datu-base bateratu honetan sartu ziren Eustatek egindako Euskal AEko Denbora Aurrekontuaren Inkestari dagozkion datuak. Datu bateratuak (MTUS) dituzten eremu geografikoen zerrenda eta erreferentzia-aldiak honako hauek dira:

Herrialdea	Denboraldiak
Albania	2009
Australia	1974, 1987, 1992, 1997, 2006
Austria	1992
Belgika	1966
Bulgaria	1988, 2001
Kanada	1971-1972, 1981, 1986, 1992, 1998, 2005, 2010
Hego Korea	1999, 2004, 2009
Danimarka	1964, 1987, 2001
Finlandia	1979, 1987-1988, 1999-2000, 2009
Frantzia	1966, 1974-1975, 1985, 2009
Alemania	1965-1966, 1991-1992, 2001-2002, 2012
Hungaria	1965, 1976-1977, 1986, 1993, 1999, 2009

Herrialdea	Denboraldiak
Israel	1991-1992
Italia	1979-1980, 1989, 2002-2003, 2008, 2013
Herbehereak	1975, 1980, 1985, 1990, 1995, 2000, 2005
Peru	1966
Polonia	1965, 2003
Norvegia	1971-1972, 1980-1981, 1990-1991, 2000-2001
Eslovenia	1965, 2000-2001
Serbia	1965
Hegoafrika	2000, 2010
Espainia	2002, 2009-2010
Euskal AE	1992-1993, 1997-1998, 2002-2003, 2008, 2013
Suedia	1990-1991, 2000-2001
Erresuma Batua	1961, 1974-1975, 1983-1984, 1987, 1995, 2000-2001, 2005, 2014
Txekiako Errepublika	1965
Estatu Batuak	1965-1966, 1975-1976, 1985, 1992-1994, 1994-1995, 1998-2001, 2003-2011, 2012-2018

Fitxategiak 3 bertsiotan daude eskuragarri: komaz bereizitako testu-fitxategiak (CSV), SPSS formatua duten fitxategiak eta STATA formatua duten fitxategiak.

Hona hemen Oxfordeko Unibertsitaterako esteka batzuk, honako hauei buruzko informazioa aurkitzeko:

- Euskal Autonomia Erkidegoko fitxategiak sartzeara:

<http://www.timeuse.org/home>

- MTUS-erabiltzaile-zerrenda dokumentazioa, MTUSen garapena eta erabilera-potentziala azaltzen dituenak.:

<http://www.timeuse.org/mtus/guide>

- Kodetze-prozedurei buruzko dokumentazioa (MTUS Coding Procedures):

<http://www.timeuse.org/mtus/conversion>

- Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestaren edizio bakoitzerako dokumentazio espezifikoak: 1992-3 (5187), 1997-8 (5188), 2002-2 (5189) eta 2008) 5190), Spain (Basque Region) Survey Documentation (README_Spain_aaaa) izenekoa.:

<http://www.timeuse.org/mtus/surveys/ESP>

[file:///M:/PUB/Internet/Estructurales/EPT \(Uso social del tiempo\)/EPT_Microdatos/Formato_MTUS/README_Spain_2008.doc](file:///M:/PUB/Internet/Estructurales/EPT%20(Usosocialdel tiempo)/EPT_Microdatos/Formato_MTUS/README_Spain_2008.doc)

Mikrodatuen fitxategiak eskatzeko inprimakia